

nikasio arekin hizketan

i OIN BE URTENGO NEUKE!

TXILLARDEGI

N.G.: Oixe! Oin be urtengo neuke gerrara!...

Horrela mintzo zaiguna ez da haur bat, ez urrik eman ere. 73 urte ditu; baina odola bere «oindipe». Arabarra izatez, eta arabarra ere bizilekuz, Legutio-ko bere jatetxean errezebitu gaitu besoak zabalik: N.G.: Ointxe joan direz bestiak, Interviu errebistakoak. Eta oin zuek. Eztao txarto! P.H.: Ez, ez. Ez dira denak zutaz aitzu! Hobe hola! Eta zu zer moduz zabilta?

N.G.: Ondo. (Eta sabela bi eskuez gorantz altxatuz). Kajoi au ondo dau. Oneik, berriz, txarto!

Eta galtzak jaso ditu, eta «bernak» erakutsi.

N.G.: Amentxe izan nintzan eridute; eta amentxe nabil makal. Bestelan ondo.

P.H.: Nun hala?

N.G.: Gerraurrean. Oso txarto eridu ninduben, eta kamillan ekarri ninduben Santander-ti. «Oficial del ejército rojo» nintzela, eta abar, eta ilko ete ninduben billurez. Baie ez eustien azkenian «pena de muerte» rik emon.

P.H.: Eta luzaz gartzelan egona?

N.G.: Oge-ta-amasei illebete. «A disposición de la junta de Santander» egongo nintzala esautien, eta beti kanjia etorriko ete zen nireztat, eta egon ein biar.

P.H.: Luzea?

N.G.: Etzan neuria okerrera. Baie etxia erre eustien; emaztia an egoan, aurdun, ordurako iru ume zirezala. Dana sastu, dana ill...

P.H.: Zein batallaitan egin zenuen gerra?

N.G.: «Loiola» batallioian, Lino Lazkano kapitai zelarik.

P.H.: Eta geroztik bigundu egin zara apur bat?

N.G.: Bigundu ni? Bai zera! Ointxe be urtengo neuke gerrara! Useuta nago gauza asko ikusten, eta ez beti onak. Baie, bigundu ni?

Nikasio Garaigordobil legutiarrak ez du entzun ere nahi «bigundu» hitza...

N.G.: Oin be, demokrazixa dala eta ez dala, baie burruka ein biar. Eta ilde be, burruka. Badakit nik nola lurperatuko nabem, eta amaika bider esana dot: ikurriña batian bildute...

Eta segundu batzu geroxeago:

N.G.: Eseuten dozuez nire ikurriñak?

Enekin dauden bi arabarrek, Kepa Mendia eta Enrike Knorrek, ikusiak di-

tuzte. Ez nik, ordea. Eta, ez bat eta ez bi, han doa Nikaxio ikurriña famatuaren bila. Eta berriro etorrita, hantxe zabaldu du ikurriña zahar-zaharra, histuta, zimurtuta:

N.G.: Auxe iminiko dot iltian be! Nigaz egona da au kartzelan bederatzi illebetez, baitte katxoen gañetik be. Makiña mosu emondakua da au, eta makiña negar txukatua. Koloria galdute dauke. Baie auxe da niria. Beste bat badot or, 17.000 pezeta pagaute; baie nik au gurago!

Nikasio-oren ikurriña zahar hori, Arabako ikurriña guztien artean ezagunena omen da.


P.H.: Eta handik irtetean?

N.G.: Biar egin biar. Eta ganadorixan eta esniagaz asi nintzan, Bitorixan. Estraperlo denborak zirian, eta multak, eta abar. Eta nik enebalako pagetan, ba ostera kartzelara, eta dana kendu.

P.H.: Eta nola egin zinen abertzale? Nola hasi zinen?

N.G.: Berenguer erortian asi nitzen, eta gure lelengo batzokixa zabaldu geneban amen. Ni Jagi-Jagikoa nintzen. Eta areik pe gogorrek zirian. Kandido Arregi pistolagaz ibiltzen zan urte areitan. Baie etzieren ETA-kuek bezin urriñera allau. Baie aipe gogorrek oso!

P.H.: Eta orain, zelan ikusten dituzu gauzak?



N.G.: Ointxe esana deusut: burruka egin biar. Madrillek? Emon bapez!

P.H.: Eta «oraingo gudariez» zer dinozu?

N.G.: Bai, badakit: «atzoko eta gaurko gudariak»... Baie... gaurko gudariak eztauz!

P.H.: Nola esan dezakezu hori? Zer da ETA zureztat?

N.G.: Niretako ETA gauzarik ederrena da. Alaxen esan neutsan bein Leizaolari, eta ixilteko esaustan. Eta ixillik egon biar. Baie egin deuz gauzarik onenak!

P.H.: Eta zer deritoxo Herri Batasuna-ri?

N.G.: Izena du ederra...

P.H.: Nola «izena»?

N.G.: Izena du ederra, bai. Eta sinpatixe deusat nik. Ori bai. Baie kleruan, euneko larroge-ta-amar dagoz kontra. Eta olan ezin da. Partiduak be igo badau, kleruak igo dau. Ni ezkerria enaiz, eta katolikua bai. Herri Batasuna orren ezkerria izan ezpalitz... Gañera ezkerrok batu einbiar dabe. Euskadiko Ezkerria, Herri Batasuna... batu ein biar!

P.H.: Eta PNV-az, zer dinozu?

N.G.: Enau bape pozik. Gexorik egon naiz bost illebetian, eta orregatik joan direzgauzak olan. Gaur Pedro Goikoetxea da Billerle-ko alkate; eta PNV-ak lagundute urten deu. Eta nik lelengoti esan neutsen jende orregaz ez joateko, danak



fazistak direzala or, nahi «independiente» esan; atara dan jende asko topietaraño dala española. Baie kasoripez; eta botuak galdu. Eta faziste atara da. Bestiak... bi dauz PNV-kuak; beste danak... esebez, esebez! Loje, loje, eta loje. Eta 250 boto gitxiago jende ori jarri dabelako.

P.H.: Eta zelan ikusten duzu Araba?

N.G.: Polito ari dala esnatzen.

P.H.: Herri honetan, ordea, erabat galdu da euskara.

N.G.: Euskeria ezta galduko. Egon ardura barik. Baie euskaldunok alkartu in biar. Madrillen, kontra dauz danak: eunetik eun.

P.H.: Ez duzu gure galdera erantzun. Zure alabak berak erdaraz egiten ditu...

N.G.: Legutio-n aittu eitten debe danak. Baie, bakitzu: billurre urti asko onetan, eta apur bat aitzu. Baie Legutio-n bada-kije danak, baitte gaztiek pe. Eta Elosu-n eta Urbiña-n be eitten da. Urrunaga-n, Nafarrate-n, galdutxuau. Nire gazte denboran danak ekijen euskeraz erri orreitan.

P.H.: Hortaz?

N.G.: Ezet! Ardura barik egoteko. Ezta galduko. Emeko ixenak: mendienak, errekenak, baserrienak, er dauz; eta ori ezteuskue sekula kenduko. Emekuak ezteu nai euskera galdu dain. Gorbeia-ti datoren «Angelu» errekia bezala da...

Nikaxiok ez du duda izpirik egiten: irabazi egingo dugu: «au izketiau, sekula etxake españatarrei sartuko»...

P.H.: Zuk Telesforok bezala dinozu, beraz: irabazi dugu.

N.G.: Bai orixe! Baie burrukan! Telesforo bezela. A be gogorra izan da. Ezin lejo ezer kendu. Merezi dauz onore guztiak. Asko pasau deu. Zer sakatuko diozu? Aurrian ibilteko gixona ezta geur. Nire edadia dau. Zer nai dozu? Asesoramentua: ori bai.

P.H.: Eta Leizaola-z, zer?

N.G.: Gixon hau?

(Eta eskuetan hartu du azkeneko PUNTO Y HORA, azaleko fotoa erakusten digularik)

N.G.: Gixonik andiena da au! Kotxian bada be, joan egingo naz bera etortean.

P.H.: Ezer esan nahi ahal diezu PUNTO Y HORA-koei?

N.G.: Ez, ez. Baie suskribidu naizu.



P.H.: Eta zer jarri behar dugu?

N.G.: Aski da: «Nikasio. Legutiano». Allauko da.

P.H.: Besterik ez?

N.G.: Ezta besterik biar, ez. Baie naiba-

dozu, imini eizu etxe onen ixena: «Kurtzi-aldia».

Eta hantxe utzi dugu Nikasio Goroigordobil gudari sutsua, Euskadi-ren etorkizunaz zalantza izpirik ez duelarik.

Euskadi Sur

2 diarios

3 semanarios

3 emisoras de Radio

Euskadi Norte

un sólo semanario

Enbata

Ayude a la prensa de Euskadi Norte

**Suscripción por 1 año 2.000 Pts.
Forma de pago: Cheque internacional**

ENBATA, 3 Rue des Cordeliers - 64100 - Bayonne